

SUSPERKA 2025

Kultura erakundeei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea, Gipuzkoan garatzen diren kulturaren edozein arlotako programak finkatzeko.

Oinarriak eta infoa



ESKATZAILEAK

Elkarteen edo kooperatiben erregistro publikoren batean dauden eta jarduerak Gipuzkoan egiten dituzten irabazi- asmorik gabeko kultura- erakunde eskatu ahal izango dituzte, nahiz eta egoitza soziala edo fiskala Gipuzkoatik kanpo izan.

KANPO GELDITZEN DIRA

- Azken hamar urteetako bost edo gehiagotan Kultura Zuzendaritza Nagusiaren diru laguntzaren bat jaso duten entitateek
- Kultur Zuzendaritza Nagusiaren jarduketa esparruekin zuzenean zerikusirik ez dutenak
- Dirulaguntza izenduna jaso behar dutenak
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste laguntza deialdi - batzuetan espresuki sartuta daudenak edo hobeto egokitzen direnak
- Aisia eta denbora librearen okupaziora nahiz gazteriari zuzendutakoak
- Jai-programak eta erritu izaerakoak
- Azoka tematikoak, neazaritza azokak eta gastronomiari lotutako lehiaketak eta jarduerak
- Ikasleen gurasoen elkarteek, guraso elkarteek eta bestelako hezkuntza-erakundeek antolatutakoak
- Ikuskizun eszenikoak, ikus-entzunezkoak eta musikalak sortzea eta ekoiztea, profesionalak eta komertzialak
- Birak edo erakustaldi-proposamenak errepikatuak artista, talde edo ikuskizuna
 - Turismoa sustatzeko jarduerak
- Diskoak, DVD, liburuak edo antzekoen ekoizpena edo edizioa

DIRU KOPURUA

Gehienez 12.000€

Diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen %70a.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren% 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

AURKEZTU BEHARREKOAK

Eskaera orria bete behar da honako hau aurkeztuta:

1. Proiektuaren laburpena eta aurrekontua (diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua eta orekatua)
2. Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jarduerarengaineko azalpen txostena
3. Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko kodea edo zenbakia (IFK, IFZ)



Eskaera orria egoitza elektronikoan dago eskuragarri

ESKAERA EPEAK ETA TRAMITAZIOA

AZKEN EGUNA: 2025EKO MAIATZAREN 2

ZURIKETA AURKEZTEKO

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2025ko urriaren 30ean amaituko da.

ORDAINKETA

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60, dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera, eta gainerako %40a, urrian.

TRAMITAZIOA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da: (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu>)

GOMENDAGARRIA: Ziurtagiri digitalen bat erabiltzea (B@kQ, DNle...)

BALDINTZAK

- Jarduera Gipuzkoan egitea
- Deialdiaren urte naturalean gauzatzea, (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean)
- Ekonomikoki bideragarria izan behar du, hau da, gastuek eta diru-sarrerek orekatuak izan behar dute (diru-sarreraren artean deialdi honetan eskatzen den zenbatekoa sartuta)
- Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra sartu ahal izango du deialdi honetan

LAGUNTZAK EBALUATZEA ETA EMATEA

1. FASEA	66 PUNTU
Kultura mailako kalitatea	25
Berezitasuna eta inpaktua ingurune hurbilean	13
Lurralde- oreka	13
Kultura eragileen arteko lankidetzta	8
Hedapen- lana	7
2. FASEA	34 PUNTU
Bideragarritasun ekonomikoa	7
Euskararen presentzia	7
Emakumeen eta gizonen berdintasuna	7
Gazteen presentzia	7
Jasangarritasuna	6